

# «URREZKO EZTALAK»

XABIER ARZELUS DOMINGUEZ

«ERRENTERIAKO HIRIA» Ipuin Lehiaketa 1988, lehen zaria.

**M**IRENEK eta biok 1940. urtean ezkontzeko behar-beharrezkoa zen ausardia galanta izan genuen, inguratzun gintuon mixeria gorriari elkarrekin aurre egiteko erabakia hartu bait genuen.

«Tercer año triunfal»eko Azaroaren 15ean ezkondu ginen, hain zuzen ere, Santa Mariako parrokiaren eta, ondoren, bazkaltzera gonbidatu genituen gure familiarterako eta lagun miñenak. Gure eztaietako «banketea» eguneroko bazkariaren antzekoa izan zen eta ondo ulertu zuten gonbidatuek honela izatea, gerra ondoko pobrezian murgildurik bait geunden guztiok, gerra galdu genuenok batez ere, ez bait genuen lanposturik aurkitzen.

«Bankete»ari salda urtsu baino bero batez eman genion hasiera. Ondoren, ongi prestatutako makailua saltsan genuen eta, amaitzeko, benetan ona zegoen brazojitano zati bana. Ardorik falta ez zenez, giroa laster berotu zen eta mihiak eguneroko isiltasuna baztertu eta dantzan hasi ziren ahoetan, baita ere emakumeen irri zorrotzek jangela bete. Bazkalondoan pick-upa itzulika hasi eta tangoek giroa bete zutenean, Miren eta biok dantzatzera irten ginen, familiarterako eta lagun gazteenak berehala bildu zitzaizkigularik. Tangoen ondorioz edo, osaba Manuelek, koñaka kopa eskuan hartu eta «Viva la República... Argentina!» oihukatu zuen, baita izeba Juanitak alkandoratik tiratu eta eseri erazi ere. Lagunarterako giro alegeran Mireni aho ondoan muin egin nionean, orduan izan ziren bankete osoko txalorik beroenak.

Norbaitek fonografoan «Caminito» izeneko tangoa jarri zuenean, ezkonberriok gure ihesari ekin genion. Iruñearantz abiatzen zen «La Roncalesa»ko autobusa lau t'erdietan irten zenez, aitzaki ezin hobe izan genuen ia oharkabean alde egin eta ezti-bidaiari hasiera emateko. Beraz, jatetxetik telefonoz taxista eskatu eta berehala egon ginen autobusaren geltokian. Heldu ginenerako «Saurer» autobus zuria ia beterik zegoen eta ez zen beheko aldean eserlekurik gelditzen. Honelakorik espero ez nenez, ustekabe honek nahiko kezkatu ninduen, ez bait zitzaidan egokia iruditzen geure eztaibidaia erosotasunik gabe hastea. Baina egun urrun haietan oso gazteak ginenez eta Miren beti oso animo haundiko neska izanenez, gure egurrezko maleta hartu eta autobusak atzekaldean zituen metalezko eskaileretatik autobus gaineko zurezko bankutxoetara igo ginen. Bizikleta zahar baten eta hainbat fardelen gainetik pasa eta bankutxoetan eseri ginenean, barrera hasi ginen eta Mirenek nekez jarri zituen berriro eskaileretatik igotzeko kendu zituen takoi altuzko oinetakoak. Miren maitekero besarkatu eta ezpain lodikoteetan musu luze bat eman nion arte ez ziren barreak amaitu.

Donostiatik Tolosarako bidea zero goibel eta hitsaren **magalean** egin genuen eta, autobus gaineko gure bankutxoetan eseririk, hodeiak urratzen genituela iruditzen zitzaigun. Oria hibaiaren ur nahasi eta marroiak izan genituen gero bidailagun eta, Tolosako herria astiro zeharkatu ondoren, sugea bezain bihurria den bideari jarraitu genion. Lizartzako parean hasi ziren bidaiari batzuentzat zorabio eta okadak. Ez Mireni ezta niri ere ez zitzaigun ordea errairik irauli eta autobusak bihurgune bakoitzean egiten zituen kulunkadak ia jostagarri gertatu zitzaizkigun. Une batzutan, Araxes erreka ur bizi eta basatiek eginiko marmarrak autobusaren motorearen orro luzea gainditzen zuten.

Gau iluna zen «Saurer» gure autobusak Azpirozeko aldapa gogorrari ekin zionean. Autobusaren bozina bereziak- «txip-txip-txip» egiten bait zuen—maiz jo zuen aldapan gora, motore animatu nahiean edo. Bi faro haundien argi motelak ezin zuten, bestalde, sirimiriak autobusaren aurrean eraikitako hesi hezea zulatu. Benetan krudelkeriaz egin zirendien bihurgune pasagaitz batean dagoeneko oso larria zen autobusaren harnasketa ia ito zen betirako. Lasterketetan zaldi batzuek hesien aurrean bapatean izutu eta atzera egiten duten antzera, ez zirendien autobusak bihurgune hura gainditzeko behar adina ausardia zuenik. Autobusa ia gelditzen zela sentitu eta, asaldaturik, Mirenek eskuin eskua herstutu zidan eta ia hantzakalak sartu zitzaizkidan autobusak pare bat metro atzerantz egin zuenean. Gero, autobusak orro basati batez eraso egin zion bihurguneari, geure atzean zegoen fardel pila erortzen zen artean. Azkenik, «Saurer» markako autobus zuria garaile gertatu zen. Azpiroz bortuko gainera heldu ginenean autobusak arnasa berreskuratzen zuen eta, autobusarekin batera, Mirenek.

Bortutik Lekunberrira berehala jetsi ginen, ez bait zirendien autobusak galgarik zuenik. Goardia Zibilaren koartel aurretik pasatzerakoan «Todo por la Patria» eta biperpotea geure begien alturan ikusi behar izan genituen. Autobusa gelditu bezain laster geure bankutxoetatik makurka altxa, maleta hartu, sakabanaturiko fardelen gainetik pasa eta metal bustizko zurubitik jetsi ginen. Eurria ari zenez geltokiaren aurrean zegoen ostatuaren atarian babestu ginen bainan ez ginen bertara sartu eta, ateri zegoenean, errepidetik eskuin alderantz jotzen zuen bide batetik sartu ginen, «Amatxiena» izena zuen baserrirantz. Lagun mendizale batzuren gomendioz ginjoazen bertara, Aralar aldean ibiltzen zirenentzat beti omen bait zuten gelaren bat baserri baketsu hartan.

Nahiz eta baserrirainoko bidea luzeegia ez izan, nahikotxo kostatu zitzaigun bertara heltzea, bidea zeharo lokazturik bait

zegoen eta oso iluna. Gurekin generaman linternak ez zigun gehiegi lagundu, poltsikoan sartzerakoan ustekabea pasa zenez ia agorturik bait zituen pilak. Lokatzetan gelbiltzanez Mirenek zapatak kendu eta oinutsik segitu behar izan zuen, maleta eskuan neramanez ezin bait nuen nire emaztea besoetan hartu, filmeetan egiten ohi duten bezala. Maleta astunak zuen metalezko eskutokiak berak nahiko min egiten zidan eskuan.

Baserri hura non arraio ote zegoen pentsatzen hasiak ginenean etxearen multzo iluna somatu genuen azkenik gure aurrean. Baserri aurrean zeuden katu iheskor bik segundu pare batez begiratu ziguten eta, ondoren, itzalen isiltasunaz ezabatu ziren. Inguru osoan isiltasuna zen nagusi eta ez zirudien barnean inor zegoenik. Hiru edo lau aldiz eragin nion ateko kisketari eta, erantzunik ez izatean, egin berria genuen bideko lokatzetan zehar herriko ostaturantz jo beharko genuela pentsatu genuen, baita ernegatzen hasi ere. Alde egitear geundela, ordea, ate gaineko bonbilaren aria gorritu egin zen eta, ondoren, maratila kraskada batez zabaldu zen.

«¡Gabon!», esan nion atea zabaldu zigun itzalari. Itzalak ez-tul antzeko baten bidez erantzun zigun. «Ba ote duzue Miren nire emaztearentzat eta biontzat egun pare baterako gelarik?», esan nion barnekoari. Mamu antzeko hark atea osorik zabaldu zuenez barnera pasa ginen. Ipurtargi baten antza zuen beste bonbila baten argi ahulak gizon gihar eta garai baten irudia ozta azaldu zigun. Gizonak hiruzpalau egunetako bizarra zuen eta ia begietaraino sarturik zuen txapela koipe-tsua eta zikina zirudien. Hitzik esan gabe atarira ematen zuen zurezko eskailerarantz urrats batzu egin eta «Fermina! Fermi-na!» egin zuen ohiu, hustutako enbor zahar baten abotsaz.

Fermina omen zena eskailera karraskatsutik jetsi zenean katu hits bat besoetan eta aurpegian begi zorrotzak zituen. «Zer dela eta bikote ezkonberri bat ezta gaua baserri galdu honetan pasatzera etorri?», esan zigun Fermina zelakoak irribarre maltzurrez. Geure harridura somatu zuenean «ez naiz az-tia,» esan zuen, «bainan zure andrea ez da oraindik eraztuna eramaten ohitu». Egia zen, Mirenen ezker eskua, oharkabean, hatzamar nagian zuen eraztuna atera nahiean bait zebilen. «Ba dugu, bai, eskatu duzuen logela hori», esan zigun gero Ferminak, bera segitzeko keinua egiten zigun artean. Andre haundi haren pisu astunak eskailerako olak erazten zituen urrats bakoitzean. Gero, kandela bat eskuetan zuelarik, lehen solairuko pasabidean zehar segitu genion, Ferminak gela bateko atea zabaldu zuen arte. Giltza poltsikotik ateratzeko edo, Ferminak besoetan zuen kagua zoluan utzi zuen, baita Mirenek oihi isila egin, animalia ez zegoela bizirik konturatu bait ginen. Katua kartoizko kolpe batez sahetsetan erori zenean diseaturik zegoela jakingenuen. Ferminak irriho batez begiratu zigun. «Gure "Xilibrina" hil zitzaigun egunean galdu zuen "Amatxienak" inoiz izan duen katueme bikainen». Eta berehala erantsi: «Nahiko dugu "Xilibrina" gizajoaren gorpu lehorra han zein hemen jartzea ez sagurik ezta arratoirik ere inguratzeko!».

Gero burdinezko giltza haundia sarrailan eragin zuen eta ateari bultza egin zion. «Hona hemen zuen logela», esan zuen. «Hor behean ezagutu duzuen nire gizona ez da berritsu horietakoa bainan zerbitzari ona dugu, deitu beraz zerbait beharrez gero... Eta orain gabon eta ondo lo egin, jaun-andreok!». Ondoren, Ferminaren urratsen zurezko kraskadak sentitu genituen denbora luzez, denbora luzeegiz agian, Fermina amarik gabeko pasabide batean galdu izan balitz bezala.

Egun osoko tentsioak jota edo, barre isilean hasi zen Miren, irri urduria ahoan itotzen zitzaiolarik. Lasaitu nahirik maitekiro besarkatu nuen. «Gustatzen zaizu geure lehen logela?», galdetu nion. Erantzun aurretik bi koltxoi zituen ohe altua ukitu zuen. Oso ohe biguna zen, antza. Gela, bestalde, haundia eta otza zen eta atearen eskuin aldera sapa garairaino heltzen zen armairu erraldoi batek hartzen zuen pareta osoa, konfesategi astun baten itxura zuelarik. Armairuaren ate osoa ispilu batez estalia zegoen bainan ez zion honek, halere, armairuari bere itxura iluna eta tristea gutxitzen. Gelaren bestaldean eskuak eta aurpegia garbitzeko konketa eta pitxarra ikusi genituen, baita mesanotxe barnean pixontzi ederra.

«Gustatu edo ez, ez dugu orain gela hoberik...», erantzun zuen Mirenek.

Hain zen giroa hotza zeren berehala erantsi eta ohean sartu ginen, agian ezkonberriei ezta gauean ez dagokien modu mekanikoan. Gutxienez hiru burusi zituen ohean herrestaztea ez zitzaigun erraza gertatu, hain ziren pisuak burusiak eta hezeak izarak. Mirenek, dardarka, berotasun bila edo besarkatu ninduen, ur beraz betetako gomazko poltsa bat besarkatu izan balu bezala, erotismorik gabe, nahiz eta hura elkarrekin emaniko lehen gaua izan. Minutu luzez egon ginen lastandurik. Azkenik hotza gaindutu genuenoan, orduan bai, ezkon berriei dagozkien hasperen, samurkeria, ferekak, ukitzeak, tentsioak eta lasaitzeak gertatu zitzaizkigun. Artilezko koltxoietan eginiko habi epelean mundutik at sentitu ginen eta lehen momentuko hotzak su eta galda bilakatu ziren.

Oilarren irrintzi zorrotzak itzartu gintuen, munduan argi aztarnarik oraindik agertzen ez zenean. Logelaren azpian genuen kortan orro luze, lehen eta borobilak entzun genituen eta, berehala, esne txorrotek ontziaren kontra egiten zuten soinu busti eta erritmikoa. Artilezko gure babesleku berotik egunsentiko lehen orduak kanpoan libre utzitako euri zaparrada mantsoaren hotsa entzun genuen. Eurijesak giroan sortutako armoniak ia mugarik gabe zabaldu zuen ohean biltzen gintuen gozotasuna.

Goseak bultzaturik utzi genuen ohea. Galtzerdi eta erropa beroenak atera genituen maletatik eta berehala jarri genituen. Ondoren, lehiora hurbildu eta euri tantak elur maluta galantak bilakatu zirela ikusi nuen. Urrunean, argi esnetsu artean, agertzen ziren mendi gailurrak erabat zuriturik zeuden eta lehio ondoan egon ginen biok, liluraturik, paisaiari so. Hodei hitsen magalean sortutako bista berria ez zirudien lurti-rra, jadanik ahastuak genituen haurtzaroko mundutik ateratakoa baizik.

Logelako atean emaniko golpe batzuk momentu haren lilara hautsi zuten. «Egun on! Gosaria!», esan zuen Ferminaren abots kraskatu eta ozenak. «Oharra baino agindua dirudi, gusto haundia eta berehala obedituko dugun agindua, gainera!», esan nion Mireni. «Bai, gosaldut beharko, nahita nahi ez!», erantzun zuen pozik Mirenek. Konketa aurrean, pitxar zuri eta garaiak zuen ur erdi izoztuaz kattuen modura busti genituen begiak eta beheko solairuan zegoen sukalderrantz bideratu ginen. Sukaldea esne beroari zerion lurruin usain epelez beterik zegoen. «Gau on baten ondoren, gosari ona egokiena!», esan zigun irriz-mirriz Ferminak, sartaian arraultze pare bi eta lukainka zatiak frijitzen ari zela. «Hara hor gure Martzelinok ez duela ezer gutxi gosaltzen eta hortik dator kio Purgatoyoko arima baten itxura», erantsi zion algaraz orain sorgin itxurarik ez zuen etxeko andreak. «Inguruetan besterik ez zegoela eta hara zergatik hartu behar izan nuen Martzelino», esan zuen gero Ferminak, sukaldeko zoko batean eseririk zegoen bere senarrak fitsik esaten ez zuela. «Zeuk, ordea, zorionez eta gizona nik baino gehiago izan dezazun espero dut, gazte!, segitu zuen Ferminak, Mireni begi-rra. Lotsaturik edo, nire emazteak bere aurrean zuen plater lodi eta haundirantz jetsi zituen begiak.

Baserrian egin genituen bi egunak ahaztezinak gertatu zitzaizkigun, ezkonberriei eta haurrek ezagutzen dituzten zor- rionak bildu bait zitzaizkigun. Egun osoan inguruetako mendi eta zelai elurtuetan ibili ondoren, ahiturik itzultzen ginen sukaldeko berotasunera. Iluntzerakoan, Fermina eta hirurok kartetan aritzen ginen, Martzelino bere zokoan eseririk isiltasun osoan begiratzen zigularik. Ez ote zegoen Martzelino «Xilibrina» famatua bezain lehorra eta hutsa pentsatu banuen ere, ez nion Mireni antzekorik esan, ez bait nuen alferrik izutu nahi. Gainera sagurik hartzen ez bazuen ere Martzelinok zigarrorxoak erretzen zituen guri kartetan so.

«Amatxiena»n zoriontsuak izan ginela esaten badut ez dut, beraz, gezurrik esango, hain izan ziren bi egun haiek bereziak. Hara zergatik erabaki genuen Mirenek eta biok «Amatxiena»ra gure «urrezko eztaiak» ospatzeko itzultzea. Berro geita hamar urte luze pasa ondoren baserri hartan gure zoriontasuna birpiztera ginjoazela jakin erazi genuenean hamai- katxo ziri bota ziguten seme-alabek. Mikelek zera zion, adibi-

dez, anaia-arreba «gehiagi» zuela dagoeneko eta ez zuela gehiagorik nahi. Ana Marik zera zion bere aldetik, beldur zela ez ote gintuen «Amatxiena»ko logela famatuko hotzak bapatean hilko, «ez bait zerate gaur hain gazteak». Bainan Miren eta biok nahiko setatiak garenez ez genuen etsi.

Aitortu behar dut, halere, gure «urrezko eztaietako» bidaia-  
ren bezperan nahiko urduri nintzela. Gauerdian asaldaturik  
itzartu nintzenean bidai hura egiteko genuen asmoa lelokeria  
hutsa zela iruditu zitzaidan. Are gehiago: bikote zahar eta ero  
baten burutazioa zela iruditu zitzaidan. Irakurria nuen gainera  
guztiz ezinezkoa dela leku berean bi aldiz zoriontsua izan, ezi-  
nezkoa bait da zoriontasuna osatzen duten materiale arraroak  
birritan bildu. Goizeko lehen argiek, ordea, gauerdian orhatu-  
tako beldur guztiak ezabatu zizkidaten eta, esnatu zenean,  
«nobiya» inoiz baino animatuagoa aurkitu zuen Mirenek.

Hiriburuko jatetxe onenetakoan lehen eztaian izan ez ge-  
nuen benetazko «banketea» familiartekoekin egin ondoren,  
«Amatxiena»rantz bideratu ginen eta oraingoan ez genuen  
«La Roncalesa»ko autobusa hartu, geure «Peugeot 403» za-  
har eta maiteaz baliatu bait ginen.

Berrogeita hamar urte lehenago bezala, egun hits eta lan-  
brotsua genuen orduan ere. Araxes ibaiko urak haundiak ze-  
tozen. «Gogoratzen duzu autobusean pasa genuen beldu-  
rra?», esan zidan Mirenek. «Ez dut oraindik susto hura  
gaingiditu!», komentatu zuen.

Lekunberrin «Amatxiena»ra zeraman bidea aurkitzen kosta  
zitzaigun, hain zeuden inguru haiek aldatuak. Aurkitu genu-  
nean, oroitzen nuen bidea baino askoz ere herstuagoa iruditu  
zitzaidan eta bi aldeak jotzen zituen ia kotxeak, bide erdiko  
harri eta sastrakek urratzen zutelarik. «Ene! Itzul gaitezen he-  
rrira!», esan zidan Mirenek, «goazen hotelera, ez bait gara  
orain beste hartan bezain gazteak!». Ni neu ere urduritzen ha-  
sia nintzen, hain ilun eta heze zegoen bidea. Bainan haraino  
helduak ginenez ez nintzen baserria gutxienez kanpotik ikusi  
gabe atzera itzuliko. «Jakina! Nola aitortu Anderrek erokeria  
egiten ari garela!», esan zidan hasarretzen hasia zen nire  
emazteak.

Bapatean, bihurgune baten atzean, koxearen argiek etxe-  
tzar baten multzo beltza ferekatu zuten. Motorea gel arazi  
nuenean isiltasuna egin zen nagusi. Ez zegoen leihotetan ino-  
lako argirik. «Esaten nizun ba oso posible zela baserria hutsik  
egotea!», esan zuen Mirenek. «Ferminak eta Martzelinok hi-  
rurogeita hamarren bat urte bazituzten 1940. urtean eta  
seme-alabarik gabe gainera, baserria hutsik egotea dugu nor-  
malena!». Mirenek arrazoi osoa zuela aitortu behar nuen. Be-  
raz, motorea arrankatu nuen eta alde egiteko maniobra egiten  
hasi nintzen.

Momentu hartan, ordea, baserriko ate gainera bonbila piz-  
tu egin zen. «Hara! Badirudi norbait bizi dela!», esan nuen,  
«eta hemen gaudenez berandutxo da geure "erokeriaz" ahaz-  
teko!». Mirenek ezetz, hobe genuela hotelera joatea, bainan  
ez nion kasurik egin eta, atera deitu nuenean, kirrinkaka za-  
baldu zen eta atariko ilunpean zerbaiten edo norbaiten pre-  
sentsia nabari genuen. «Gabon!» esanaz agurtu nuenean ez  
zidan itzalak erantzun. «Ba ote duzue nire emaztearentzat eta  
biontzat gelaren bat?». Orro antzeko batez erantzun zigun  
itzalak, atea gehiago zabaltzen zuen artean.

Sartu ginenean, beste bonbila ahul baten argiak gizon gi-  
har eta bizartu baten aurpegi zurbila deskubritu zuen. «Nor  
zaitugu? Martzelino zenaren familiartekoren bat, agian?». «Martzelino» hitza entzuterakoan itzalaren bi begiak zorroztu  
ziren. «Ni neu naiz Martzelino...», erantzun zigun enbor huts  
baten abotsaz. Ondoren eskailerara hurbildu eta «Fermina!  
Fermina!» egin zuen oihu. Eskaileretatik norbait jeisten ari ze-  
la nabaritu genuen eta, azkenik, kartoizkoa zirudien katu bat  
besoetan zuela, andere haundi bat azaldu zen. «Hara non da-  
torren berriro gure bikotea!», esan zuen Ferminak. «Berrogei-  
ta hamar urteroko bisita ote dugu ezkonberri hauena?». Eta,  
irriño maltzurra ahoan zuelarik, keinu batez eskaileretan gora  
segitzeko gonbite egin zigun...

Donostiara itzuli ginenean ez ziguten etxekoek kontatu  
genien guzti hau sinetsi, zaharrek zorakeria asko esaten du-  
gula eta. Bainan egia osoa denez idatzi nahi izan dut, irakurle-  
ren batek agian sinetsiko duelakoaren esperantzaz.